

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

349 zb.
www.getxo.eus

>> 2020ko Urria

Zinegoak 2020

www.zinegoak.com

Bilboko Gaylesbitrans 17. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia
17^o Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas Gaylesbitrans de Bilbao
17th Bilbao International Gaylesbitrans Film and Performing Arts Festival

ANTOLATZAILEA ORGANIZA

ASOCIACIÓN
ZINEGOAK
ELKARTEA

BABESLE OFIZIALAK PATROCINADORES OFICIALES

berdindu!



euskaltel

LAGUNTZAILEAK COLABORADORES



Bizkaia
Euzko Legeburuak

Bilbao

Nabarmen tzeakoak

> "Zinegoak" Gaylesbitrans Nazioarteko festibalaren hedapenari berriro helduko zaio

> GetxoExpressen bostgarren edizioa abian

> CALEIDOSCOPIO argazkilaritzako online formakuntza programa



CALEIDOSCOPIO argazkilaritzako online formakuntza programa

Urriaren 28tik apirilaren 30era bitartean, Helena Goñi Udalaren Wanted lehiaketaren laguntzarekin sortutako CALEIDOSCOPIO argazkilaritza garaikideari buruzko doako prestakuntza programa garatuko da.

Getxoko eta Bizkaiko 16 urtetik 25 urtera bitarteko gazteei zuzenduta dago, baldin eta haien lan artistikoa zabaldu eta argazkilaritza toki desberdinetatik lan egiteko tresna gisa ulertzen badute (praktika artistikoa, ikerkuntza, fitxategia, edizioa, publikazioa, kudeaketa eta komunikazioa). Programak sei hilabeteko iraupena du eta irudi eta argazkilaritzaren esparruan lan egiten duten hainbat profesionalen emango dituzten solasaldi eta lantegietan gauzatuko da. Hona hemen edizio honetako hizlariak: Alejandro Acín, Sofía Ayarzagotia, Alejandra Carles-Tolrá, Mirari Echávarri, Arantza Elejabeitia, Alberto Feijóo, Helena Goñi, Carmen Gray, Camila Kevorkian, Nicolás Llasera, Laura C Vela, Fiebre Photobook eta Editorial Terranova. Programak urriaren 28tik apirilaren 30ra bitartean luzatuko da, eta 33 orduetan egingo da (bi orduko hiru saio hilean).

Gehienez 15 plaza eskainiko dira eta izena emateko epea hilaren 15era arte egongo da zabalik, 23:59ak arte. Ebazpena urriaren 21ean emango da jakitera mezu elektronikoen bidez.

Informazio gehiago: info@caleidoscopiofoto.com edo Instagram-en: [@caleidoscopiofoto](https://www.instagram.com/caleidoscopiofoto).

BEKAK SARIAK

* **Beldur Barik lehiaketa 2020**, Emakundek eta hainbat erakundek antolatuta gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko. 12 eta 26 urte bitarteko gazteek parte har dezakete, hiru kategoriatan, adinaren arabera, eta gehienez, hiru lan aurkeztu ahal izango dituzte, originalak. Edozein motatako adierazpen artistikoak onartuko dira, baldin eta bideo-formatuan aurkezten badira (flashmobak, poemak edo gogoetarako testuak, bideoak, argazkiak, fotomuntaiak, fononobelak, lipdubak, dantza...). Bideoa bi plataforma hauetako batera igo behar da: YouTube edo VIMEO, eta ez ditu 3 minutu gairatuko, kredituak barme. Lanak azaroaren 5era arte aurkeztu ahal izango dira. Informazio gehiago: <https://www.beldurbarik.eus/>

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Uria

- Hilak 3, larunbata: IRTEERA: OBRATZAILEA
- Hilak 6, asteartea: ASANBLADA: AZAROAREN PROGRAMAZIOA
- Hilak 8, osteguna: EKINTZA: URA
- Hilak 15, osteguna: EKINTZA: ZABALKETA
- Hilak 17, larunbata: IRTEERA: BASONDO
- Hilak 20, asteartea: TAILERRA: KAMISETEN ESTANPAZIOAK
- Hilak 22, osteguna: TAILERRA: HARRAPAKARIAK
- Hilak 25, igandea: EKINTZA: ZINEGOAK
- Hilak 29, osteguna: EKINTZA: ELEKTRIZITATEA
- Hilak 31, larunbata: IRTEERA: MEATEGIA

GureGune gazteleku

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Uria

- Hilak 2, 9 eta 16, ostirala: TAILERRA: IRRATIA
- Hilak 3, larunbata: ASANBLADA: AZAROAREN PROGRAMAZIOA
- Hilak 17, larunbata: IRTEERA: BOLUEKO HEZEGUNEA
- Hilak 27, asteartea; 28, asteazkena, eta 29, osteguna: ZINEGOAK: LUZAPENA
- Hilak 30, ostirala: ZINE FORUMA: ANIZTASUNA ONARTZEN
- Hilak 31, larunbata: IRTEERA: POBALEKO BURDINOLA MUSEOA

GauEgun gazteleku

Konfinamenduagatik bertan behera geratu ondoren “Zinegoak” Gaylesbitrans Nazioarteko festibalaren hedapenari berriro helduko zaio

Zinegoak-en hedapena martxoan konfinamenduagatik Getxon bertan behera utzi ondoren, hilabete honetan, urrian, aurreikusitako jarduerak egingo dira. Hartara, Hegoak elkarrekin antolatutako Zinegoak, Gaylesbitrans Nazioarteko Festibala Getxora etorriko da 16. urtez, Udaleko Gazteria Zerbitzuaren laguntzarekin. Berriro ere haur eta nerabeentzako edukia sartuko dira eskainiko diren lanetan. Hartara, aurten ere Algorta eta Romoko Gaztelekuetan hainbat emanaldi izango dira, eta baita ipuin kontalaria Ludotekan ere. Halaber, Romo Kultur Etxean emanaldi irekia eskainiko da publiko guztiarentzat. Egungo osasun arauak bete ahal izateko, proiektzioen aretoetara sartzeko unean tenperatura hartuko da eta gela erabiliko da. Barruan derrigorrezkoa izango da maskara erabiltzea eta segurtasun-distantzietan eustea.

Kukupraka ludoteka
Urriaren 27an, asteartean,



18:00etatik 19:00etara Ipuin kontalariren saio bat izango da, 7 eta 9 urte bitarteko ludotekako bazkideentzat.

Romo Kultur Etxea
Ostegunean, urriaren 29an, 19:00etatik 20:30era, honako filmak emango dira: XY (Islandia, 15'), Cocodrilo (Espainia, 4'), AD LIB (Euskadi, 7'), Jess (Costa Rica, Espainia eta Txekiar Errepublikak, 10'), Rani (Paquistán, 14') eta La Mariachi (Mexiko, 8'). Publiko guztiarentzat.

Gazteleku GauEgun (Algorta)
Urriaren 30ean, ostiralean, 18:00etatik 19:00etara, hurrengo filmak proiektatuko dira: *Mi Pequeño Gran Samurai* (Euskadi, 21'), XY (Islandia, 15'), *Cocodrilo* (Espainia, 4'), *Dejarse crecer el cuerpo* (Mexiko 4') eta *AD LIB* (Euskadi, 7')

GureGune Gazteleku (Romo)
Urriaren 25ean, igandean, 18:00etatik 19:00etara, GauEgun gaztelekuan film berdinarik emango dira, 11 eta 17 urte bitartekoentzat.

Getxoko filma laburren zinemaldiak 2.100€tik gorako sariak banatuko ditu irabazleen artean

GetxoExpressen bostgarren edizioa abian

GetxoExpress filma laburren lehiaketaren V. edizioa urriaren 23tik 25era egingo da. Aurten, zinemaldian parte hartzeko dauden 25 plaza 48 ordu baino gutxiagotan amaitu dira. Gainera, GetxoExpressen programazioa GetxoExpress-PRO ekimenarekin osatuko da, hau da, ikus-entzunezkoen profesionalentzako bi egun gehiago, hain zuzen ere, urriaren 21a eta 22a. Aurtengo berrikuntza izango da lehiaketa streaming bidez ikusi ahal izango dela doan (lotura iragarriko da bere webgunean). Lehiaketa urriaren 23an, ostiralean, hasiko da, arratsaldeko 18:00etan. Bertan parte-hartzaileei edizio honetako gaia emango diete. Une horretatik aurrera 25 taldeek 42 ordu izango dituzte haien ideiak landu, grabatu eta filma laburrak ekoizteko. Filmen proiektzioak eta sarien banaketa urriaren 25ean izango dira, 18:00etatik aurrera. Jaialdiak 2.100€ baino gehiago banatuko ditu irabazleen artean.

GetxoExpressPRO

GetxoExpress PRO ekimenaren barruan, urriaren 21ean LinkedIn-en aplikatutako marketing estrategietan aditua den Inge Sáez izango da. Horrek ikus-entzunezkoen industriako profesionalen ikusgarritasuna hobetzera zuzendutako tailerra eskainiko du. Honetaz gain, iaz bezala, hainbat filma labur emango dira eta lan horien ekoizpen-taldeetako kide batzuekin solasean aritzeko aukera egongo da. Aurtengo filma laburren aukeraketa Borja Crespok egingo du. GetxoExpressPROrekin amai-



tzeko, urriaren 22an, goizean, Moriarti Produzioak-eko kideek zine zuzendaritza eta talde-lanaren inguruko masterclass bat emango dute. Laster irekiko dira GetxoExpressPRO ekimeneko jardueretan izena emateko epea. Baina gogorazi nahi da aforoa mugatua izango dela.

Epai-mahaia eta babesleak
GetxoExpressen edizio honetako epai-mahaikideak honako hauek izango dira: Ramón

Barea, aktorea; Iratxe Fresneda, Zinemako zuzendaria eta Gorka Aguirre, efektu berezitateko makilajea.

Hau guztia egin ahal izateko ezinbesteko laguntzaileak dira Getxoko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Bizkaia Zubia eta Metro Bilbao. Informazio gehiago: www.getxoexpress.com, www.facebook.com/getxoexpress, [@getxoexpress](https://www.instagram.com/getxoexpress) eta info@getxoexpress.com